

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

BEROA ELKARTEA

Basoan barrena paseoan
dabiltza Ane Pirata, Patakon
eta Martin. Bat-batean,
kukua entzun dute.



BIZIPOZA

elkarlanean

Kaka!
Aurten kukua
entzuten dudan lehen aldia
eta poltsikoan
dirurik ez.

Zorte ona ematen
omen du kukua entzundakoan
txanponen bat izateak,
ezta?

Txanponak izatea
baino hobea da
habia izatea.



Zergatik esan
duzu habiarena?

Kukuak ez du habirik egiten
eta ez du arrautzarik txitatzen.
Beste txori batzuen habietan
uzten ditu bere arrautzak.



Kuku emeek arrautza mimetikoak
uzten dituzte beste espezieren baten habian.
Habiaren jabeak zaintzen ditu arrautzak
lehenengo eta txitoak gero, kukua pixka bat
handitu eta bere kabuz bizitzeko
gai den arte.



Badakizue ni harrera familia batekin
bizi naizela. Batzuetan pentsatzen dut nire ama
kukuaren antzekoa dela eta beste habia batean
utzi nauela. Guraso biologikoek oraintxe
ezin naute ondo zaindu, zailtasunak dituzte.
Beren egoera hobetu bitartean
beste habia batean nago.







Gipuzkoako Harrera Familien Elkartea da, harrera familiei eta harreran hartuko diren haur eta gazteei laguntzeko sortua. Harrerako une desberdinen inguruko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen ditu elkarteak.



Une honetan Gipuzkoan 414 haur eta nerabe harrera familietan bizi dira, arrazoi desberdinak tarteko ezin dutelako guraso biologikoekin bizi. Hala ere, beste 60 harrera familien beharra dago.



Gipuzkoako Harrera Familien Elkartea
Telefonoa: 943 245604
Autonomia kalea 17, bigarren behea. 20006 Donostia
asociacionberoa@asberoa.com
www.asberoa.com